

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Landutako informazioaren bilaketarako estrategiak aplikatuz, emandako euskarri desberdinetako (paperezkoak, ikus-entzunezkoak zein digitalak) testuetan finkatutako komunikazio-asmoari dagokion informazio zehatza identifikatu eta erregistro-fitxan jaso	<p>1.1 Idatzi nahi den testuaren komunikazio-asmoaren baitan beharrezko informazioa identifikatzen du.</p> <p>1.2 Beharrezko informazioa aurkitzeko estrategiak erabili eta adierazten ditu.</p> <p>1.3 Hautatutako informazioa egoki, modu ulergarrian eta zuzen erregistratzen du.</p>
2. Testua planifikatzeko komunikazio-asmo jakin bati erantzuten dion informazioa (norberak jasotakoa nahiz emandakoa) deskribapen-egitura irudikatzen duen eskema grafikoan antolatu.	2.1 Informazioa gaiaren eta emandako azpi-gaien baitan sailkatzen du.
3. Emandako dibulgazio-artikuluaren sarreraren egokitasuna baloratu emandako irizpideen baitan eta irizpide horien arabera emandako sarrerak eraldatu.	<p>3.1 Testuaren laburpena idazten du eskema grafikoko azpi-gaiak lotuz.</p> <p>3.2 Komunikazio egoeraren edukiaren baitan sarrera egokia hautatzen du.</p> <p>3.3 Emandako hizkuntza-baliabideen artetik egokiak hautatuz sarrera eraldatzen du.</p>
4. Ideien arteko erlazio semantikoa adierazteko landutako hizkuntza-baliabideak aplikatu bai horretarako prestatutako testuen osaketan, bai norberaren testuaren sorkuntzan, bai berrikusketa prozesuan.	<p>4.1 Gehiegizko errepikapenik egin gabe, jarraipen tematikoa bermatzeko hizkuntza baliabide egokiak hautatzen ditu.</p> <p>4.2 Ideiak gehitzeko testu antolatzaile egokiak hautatzen ditu.</p>
5. Bai norberak, bai besteek sortutako testuetako informazioa hartzailearentzat ulergarria izan dadin, landutako baliabideak (linguistikoak zein edizio digitalekoak) egoki erabili.	5.1 Azalpenak eta adibideak emateko antolatzaileak egoki erabiltzen ditu.
6. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>6.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</p> <p>6.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>
7. Mintegiak hautatutako irakurketa-liburua irakurri eta ulertu.	<p>7.1 Irakurritako literatur-testua irakurri eta ulertzen du.</p> <p>7.2 Irakurketa-liburuaren inguruan egiten zaizkion galderei zuzen erantzuten die eta horien inguruko taldeko hausnarketan parte hartzen du.</p>